

# Kulturarteko Hezkuntza unibertsitatean: “Immigrazioaren fenomenoa eta egokitze-prozesua” Sekuentzia Didaktikoa

(Intercultural Education in the University: the Didactic Sequence on “The immigration phenomenon and the adaptation process”)

Madinabeitia, Monika<sup>1</sup>; Barquín, Amelia<sup>2</sup>;  
Alzola, Nerea<sup>3</sup>

Mondragon Unib. HUHEZI. Fak. Dorleta, z/g. 20540 Eskoriatza

<sup>1</sup>mmadinabeitia@mondragon.edu. <sup>2</sup>abarquin@mondragon.edu.

<sup>3</sup>nalzola@mondragon.edu

Jaso: 16.11.2011

BIBLID [ISSN: 1137-4446, eISSN: 2255-1069 (2012), 18; 221-237] Onartu: 05.11.2012

---

*Hemen aurkezten dugun testuak Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean eskaintzen den “Baliioen Hezkuntza eta Kulturarteko Hezkuntza” materiaren sekuentzia didaktiko baten berri ematea du helburu. Materia hori Irakasle Ikasketetan eskaintzen da, 2. mailan. Azalduko dugun sekuentzia materiaren lehenengoa da eta “Immigrazioaren Fenomenoa eta Egokitze-prozesua” du izenburutzat, hain zuzen.*

*Giltza-Hitzak: Kulturarteko hezkuntza. Immigrazioa. Egokitze-prozesua. Usteak. Errepresentazioak.*

*El objetivo de este artículo es exponer una secuencia didáctica de la materia “Educación en valores y educación intercultural” que se imparte en el segundo curso del Grado de Maestro en la facultad HUHEZI de Mondragon Unibertsitatea. La secuencia que presentamos tiene por título “El fenómeno inmigratorio y los procesos de adaptación”.*

*Palabras Clave: Educación intercultural. Inmigración. Proceso de adaptación. Creencias. Representaciones.*

*L’objectif de cet article est celui d’exposer une séquence didactique de la matière «Education des valeurs et éducation interculturel» qui s’offre au cours de la seconde année du Degré de Formation de Maîtres à la Faculté HUHEZI de l’Université Mondragon. La séquence qui nous présentons a pour titre «Le phénomène de l’immigration et les processus d’adaptation».*

*Mots-Clés: Education intercultural. Immigration. Processus d’adaptation. Croyances. Représentations.*

## SARRERA

Hemen aurkezten dugun testuak Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean eskaintzen den *Balioen Hezkuntza eta Kulturarteko Hezkuntza* materiaren sekuentzia didaktiko baten berri ematea du helburu. Materia hori Irakasle Ikasketetako 2. mailan dago kokatuta. Ikasleak hezkuntza arloko profesionalak izateko bidean daude eta materiaren helburua da ikasleek kompetentzia multzo bat garatzea, bai gero eta kulturantzago den euskal gizartean herritar moduan egoki bizi ahal izateko, bai testuinguru hezitzaileetan kulturantzatasunarekin eta eleantzasunarekin harremanetan irakasle moduan egoki lan egin ahal izateko. Azalduko dugun sekuentzia materiaren lehenengoa da: "Immigrazioaren fenomeno eta egokitze-prozesua" deritzona hain zuzen.

Artikuluaren bertan adieraziko dugun bezala, materia hau ikasleen barnebidaiak gisa planteatzen da, non, besteak beste, berraien usteak eta jarrerak aztertzeko eta erreibisatzeko espazioa aurkituko duten. Hau horrela izanik, lehenengo sekuentzian ikasleak immigrazioaren fenomenora hurbilduko dira, hori izaten baita askorentzat berraien barruarekin alor honen inguruan aritzeko hartzen duten lehen tarte. Izan ere, lehen sekuentzia horretan ikasleek izango dute aukera harrera gizartean sortzen diren kezken eta beldurren inguruan barne-elkarrizketa egiteko, eta baita horiek dakartzaten ondorioez ere, besteak beste.

HUHEZI fakultatea (Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea) aitzindaria izan da *Kulturarteko Hezkuntza* izeneko materia ikasketak planetan sartzen, bai Psikopedagogian (2002an) bai Irakasle Ikasketetan (2004an). Egun, Kulturarteko Hezkuntza graduan eskaintzen da, *Balioen Hezkuntza eta Kulturarteko Hezkuntza* (BHKH) deritzon materiaren barruan.

Testu honen egileek ELEA ikerketa taldea osatzen dute. Talde hori aritu da materia horien sorreran eta garapenean, eta ahalegin didaktiko hori hainbat ikerketa lanekin uztartu du honako arloetan: ikas-irakaskuntza testuinguru kulturantzetan; hizkuntzen ikas-irakaskuntza testuinguru eleantzetan; eta, azkenik, irakasleen pertzepzioak immigrazioaren eta ikasle etorkinen inguruan. Taldeak egindako zenbait ikerketek materiarekin lotura handia izan dute eta alderantziz; esan dezakegu elkar elikatu dutela hein handi batean.

### 1. MATERIAREN TESTUINGURUA

Estatu espainiarraren beste erkidegoetan bezala EAEn immigrazioaren gorakada nabarmena izan da 2000. urtetik hona. Immigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera, 2000. urtean herritar atzerritarrak 21.140 ziren, populazio osoaren %1; 2012ko urtarrilean, berriz, 151.162 atzerritar zeuden EAEn erroldatuta (populazioaren %6,9). Gehitu daiteke, bestalde, gaur egun EAEn immigrazioaren gorakadak jarraitzen duela, estatu osoan beherakada txiki bat nabaritzen den bitartean. Hezkuntzari dagokionez, EAEko ikasleen artean 23.765 atzerritar egon ziren 2010-2011 ikasturtean (ikasleen %8,1).

Zalantzarik gabe, immigrazioa oso fenomeno garrantzitsua izan da gizartean orokorrean, eta eskoletan hain zuzen. Izan ere, ikasle berrien eskolatzeak ondorioak izan ditu EAEko hezkuntza sisteman: kezkek, mesfidantzak eta desorekak sortu dira, baina baita ere aukerak eta bide berriak (Barquín 2009, Barquín 2011).

Jakina da atzerritik etorritako ikasleekin batera aniztasuna areagotu dela. Ikasle etorkinek ekartzen dutena gelan jada dauden aniztasunei gehitzen zaie (ikas-estiloak, gaitasunak, interesak, generoak...). Kanpotik etorritako familia baten umea izatea alderdi multzo batekin lotuta egon daiteke eta alderdi horiek eskolak kontuan hartu behar ditu: a) familiaren alderdi kultural batzuk, b) harre- ra gizartearen hizkuntza(k) ez jakitea, batez ere gurea bezalako gizarte batean non hizkuntza gutxitu bat dagoen normalizatzeko prozesuan, c) hezkuntza siste- man adin batetik aurrera eskolatzea... (Barquín 2007). Dударik ez, alderdi horiek kudeatzeak esan nahi du irakasleen aldetik ahalegina handitzea: denbora, for- mazioa eta baliabideak behar dira. Errekurtso horiek, baina, ez daude beti esku- ra ataza berriak nahi eta behar bezala aurrera eramateko.

Aztertuko dugun sekuentzia kulturarteko hezkuntzaren barruan kokatzen dugu. Zehaztu dezagun, lehenengo eta behin termino horrek bi zentzu dituela eta biak jorratzen direla azaltzen ari garen material zehar.

Alde batetik, Kulturarteko Hezkuntza elkarbizitarako hezkuntza da gero eta anitzagoak diren gizarteetan. Anitzak dira mugimendu migratorioen ondorioz, baina baita ere gure mundua "globalizatu" delako, distantziak murriztagoak dire- lako eta jatorri desberdinetako pertsonak hainbat mailatan elkartzen garelako, fisikoki ez bada ere. Beste hitz batzuekin esanda, jarrera eta gaitasun intelek- tual, sozial eta emozionalen multzo bat da, beste herritar batzuekin elkarrekin- tzan sartzeko -berdin zein den haien jatorria- ingurune anitz batean. Pertsona guztientzako hezkuntza da, orduan.

Kulturarteko Hezkuntza beste modu batean ere izan da ulertua: "etorkinekin hezkuntza" moduan, alegia, aniztasunaren trataera moduan eta hain zuzen etor- kinen seme-alabek ekarri duten aniztasunaren trataera, ume horiek berezko ezaugarriak eta behar espezifikoak dituzten heinean. Ezaugarri eta behar horiek, noski, ez dituzte kolektiboaren gizabanako guztiek partekatzen edo ez dituzte maila berean partekatzen; kolektiboak berak, barne aniztasun nabaria dauka.

Besalú azaltzen duen bezala (itzulpena gurea da):

Ez dago kulturarteko berezko pedagogiarik; kulturarteko hezkuntza tradizio pedagogiko onenarekin uztartzen da, alegia, ikasleen premietatik, esperientzie- tatik eta interesetatik abiatzen da eta pertsona moduan garatzeko laguntzeaz arduratzen da; pertsonak haien aniztasunean artatzen ditu (Besalú 2002: 72).

BHKH materialak bidea egin du eta, oinarria mantendu duen arren, egokitzen eta bilakatzen joan da urteetan zehar. Izan ere urtero errebisatzen da eta bere ibilbidean zenbait testu aldatu dira, datuak etengabe eguneratu dira, zenbait gai ordenez aldatu dira edo berregituratu dira... Materia dinamikoa da eta bere erai- kuntza beti dago prozesuan.

Materiak gaur egun duen formatua azalduko dugu labur. Hasteko esango dugu BHKH materia 6 kreditutakoa dela (6 ECTS) eta honako sei sekuentzia didaktiko hauek osatzen dutela:

- Immigrazioaren fenomeno eta etorkinen egokitze-prozesua
- Kulturarteko hezkuntza
- Hizkuntzak ikas/irakastea
- Erljio gertakaria
- Herritartasun globalerako hezkuntza I
- Herritartasun globalerako hezkuntza II

HUHEZI fakultateak 2002-2003tik aurrera ezarri duen hezkuntza proiektu berriaren barruan kokatzen da materia. Mendeberriz izeneko hezkuntza proiektu horren ardatza ikasleengan zentratutako ikas/irakaskuntza da eta horrek eraldaketa metodologiko sakona eragin du: jarduera aktiboak (*learning by doing*); kasuetan, arazoetan eta proiektuetan oinarritutako metodologia; talde kooperatiboen bidezko ekoizpenak... Labur esanda, metodologia eraikitzaileagoa jarri zen abian proiektu berriarekin (ikus Arregi, Bilbatua eta Sagasta 2004; Sagasta eta Bilbatua 2006, Garcia et alia 2008) eta BHKH materia horren adierazlea da.

Xede nagusien artean dago edukiak profil profesional berriaren eskakizunetara egokitzea, irakaslegaiak beharrezko konpetentziak eskura ditzaten. Beste helburu garrantzitsu bat da edukiak egokitzea ikasketa-prozesu esanguratsua errazteko. Hirugarrenez, ikasketa-prozesuaren gizarte-ikuspegia garatu nahi du, guztien onurari begira. Fakultatean egindako aldaketa metodologikoak paradigma interaktiboagoa du jomugan eta aldaketa oso garrantzitsua izan da irakasle ikasketetan :

- Ikasgaietan oinarritutako curriculum batetik, materietan antolatutako diziplinarteko curriculum batera.
- Nagusiki kontzeptuetan oinarritutako curriculum batetik, konpetentzia eta baloreetan ere errotutako curriculum batera.
- Gaien bidez bideratutako curriculum batetik, arazo, kasu edo proiektuen bidez bideratutako curriculum batera.
- Irakaslearen norabide bakarreko transmisioan oinarritutako metodologiatik, ikasketa-prozesua ikaslearen ardurapean jartzen duen metodologiara. Bide hori irakasle-tutoreak gidatzen du.
- Irakasle adituaren roletik, irakasle aditu, tutore eta errazlearen rolera.
- Ikasle hartzailearen roletik, ikasle aktiboaren eta bere ikasketa-prozesuaren gaineko erantzukizuna hartu duenaren rolera.

Irizpide hauek guztiak islatzen dira BHKH materialan, artikulu honetan zehar erakutsiko dugunez.

Bestalde, materia honen helburua honako konpetentzia espezifiko hauek garatzea da (hazietako zenbait halabeharrez Hezkuntza eta Zientzia Ministerioi 3854/2007 agindutik hartuta, irakasle titulua arautzen duen agindutik alegia):

*Jakin:*

- Ezagutzea gaurko gizartean hezkuntza familiar eta eskolarrarekin lotutako gai garrantzitsuenak: haien artean kultur aniztasuna eta kulturartekotasuna, diskriminazioa eta gizarte inklusioa.
- Ezagutzea eta kudeatzea eskola egoerak testuinguru eleanizetan.
- Ezagutzea errekursoak eta esku-hartze pedagogikorako estrategiak kulturarteko hezkuntzari begira.
- Ezagutzea erlijio gertakaria.

*Egiten jakin:*

- Diseinatzea jarduerak elkarbizitza eta balioekin lotutako lana bultzatzeko.
- Analizatzea eta kritikoki erabiltzea gaurko gizartean hezkuntza familiar eta eskolarrarekin lotutako gai garrantzitsuenak: kultur aniztasuna eta kulturartekotasuna, diskriminazioa eta gizarte inklusioa.
- Bultzatzea herritartasunerako hezkuntza demokratikoa eta pentsamendu sozial kritikoaren praktika.
- Kudeatzea hizkuntzak ikasteko egoerak ingurune eleanizetan.
- Bultzatzea elkarbizitza gelan nahiz gelatik kanpo eta gatazkaren konponketa baketsua.
- Bultzatzea errespetua eta aniztasunarekin estimua ikasleen artean.
- Ekoiztea materiarekin lotutako testu egokiak, zuzenak eta eraginkorrak, behar diren tresna informatiko egokien bidez (informazio iturriak, hiztegiak, zuzentzaileak...).

Horrelaxe daude formulatuta konpetentziak ikasleen gidan. Hala ere komeni da ohartaraztea aipatutako konpetentzia batzuk "izaten jakin" eta "elkar bizitzen jakin" motako moduan uler daitezkeela: gizarte pentsamendu kritikoarekin eta elkarbizitzarekin lotuta daudenak eta aniztasunaren errespetua eta estimua jasotzen dituenak, batik bat.

## 2. MATERIAN BARRENA

BHKH materian kasuetan oinarritutako metodologia erabiltzen da eta sekuentzietan zehar ikasleek hainbat kasuri eman behar diote erantzuna. Kasuak dira hezkuntza munduko egunerokotasunean suertatzen diren egoerak, esku-hartze pedagogiko egokia eskatzen dutenak. Badago, gainera, kasu bat, orokorra, materia osoaren ardatza dena; sekuentzia guztietan zehar ikasitakoak erantzun behar dio kasu orokor horri. Honakoa da kasua:

*Egoera berria zuretzat:*

Zortea izan duzu. Karrera bukatu eta berehala hasi zara lanean: urte osoko postua lortu duzu bost urteko gelan D ereduko eskola publiko batean. Gelari neurria hartu diozu jada, otsaila da eta ikasturte erdia pasa da.

Zure lehenengo urtea da eta "pilak" jarri behar izan dituzu. Asko ikasten ari zara eta batzuetan, lan orduetatik kanpo, hezkuntzari buruzko artikulua irakurtzen dituzu, gelako egunerokotasunean sortzen diren egoerei erantzunak bilatzeko eta sortzeko. Badakizu irakasle baten formazioa ez dela inoiz bukatzen.

Gelan 18 ume dauzkazu eta aniztasuna presente dago. Hizkuntzari dagokionez, kasu, ume batzuek euskaraz hitz egiten dute familian, beste batzuk gazteleraz. Familia batzuk kristau praktikanteak dira, beste batzuk kristau ez praktikanteak eta beste batzuk agnostikoak eta ateoak. Familia bat Jehobaren lekukoa da eta aita bat budista da. Sozio-ekonomikoki, berriz, gizarte maila ertainekoak dira gehienak eta Euskal Autonomia Erkidegoan jaio dira denak.

Duela bi aste sorpresa ederra hartu zenuen. Delegazioak eskolara deitu zuen esanez bi ume berri eskolatuko zirela zuen ikastetxean, heldu berri diren etorkinen seme-alabak. Pasa den astean eskolatu dira biak eta, hara non, adina dela eta zure gela egokitu zaie. Haietako bat Rachid da, duela hiru aste Marokotik etorria. Tamazigez hitz egiten du eta arabiera apur bat daki. Ez daki gaztelaniaz. Musulmana da. Bestea Carina da eta Boliviatik etorri da duela hilabete, bere amarekin (hemen hiru urte lanean egon dena) bizitzera. Etxean ketxueraz hitz egiten du eta gaztelaniaz ere badaki. Bere familia kristau praktikantea da.

Bat-batean konturatu zara gelako aniztasuna izugarri areagotu dela eta erantzun berriak bilatu behar dituzula. Ikasle berriek gelako hizkuntza ikasi behar dute, kurtsoaren curriculumare ere ikasi behar dute, gelan eta ikastetxean afektiboki ere integratu behar dira eta gustura sentitu... Eta aldi beren beste ikasleek ere ikasten jarraitu behar dute, noski.

Zerbait gertatzen ari da, bestalde, dezente kezkatzen zaituena. Patioko orduan hitz desatsegin batzuk entzun dira ume berrien kontra eta zure gelan ere errepikatzen ari dira: "niri moroak ez zaizkit gustatzen", "hauek zertarako datoz hona, guri lana kentzera", "hauek zikinak dira eta hainbat lagun bizi dira gela batean"...

Arlo hauetan guztietan zer egin behar duzun planteatzen ari zara. Azkeneko 10 egunetan, ume berriak eskolatu direnetik, zalantza asko sortu zaizkizu eta une askotan sentitu duzu ez zenekiela egoera kudeatzen ikasle guztien ikaskuntza prozesuak bul-tzatzeko. Kontziente zara gehiago ikasi behar duzula eta iturriak bilatuko dituzu: artikulua eta liburuak, adituen hitzaldiak, arituen testigantzak, zure kideen aholkuak...

Eta ikasle berrien gurasoekin ere hitz egingo duzu. Jakin nahi duzu zeintzuk diren guraso immigratuen bizipenak, kezkak eta ilusioak harrera gizartearekin lotuta eta haien umeen eskolarekin lotuta.

Nahikoa lan, ezta? Inork ez du esan irakaslea izatea erreza denik. Bizitzea ere ez da erreza!"

Ikusten den bezala, kasu orokor horretan materiarekin lotutako hainbat gai agertzen dira, sekuentzietan zehar jorratuko direnak.

### 3. METODOLOGIA


Sekuentzia bakoitzak bi asteetako iraupena du, alegia, lau saio. Aste bakoitzean bi saio daude eta saio bakoitza bi ordu eta laurdeneroko izaten da. Bologna-ko irizpideak jarraiki, materiaren %40a aurrez aurrekoa da eta %60 modu ez-presentzian lantzen da. Sekuentziaren lau saioak ikasleen denbora presentzian egiten dira. Saio horiekin lotutako hainbat lan denbora ez-presentzian egin behar dute: ikerketa lanak, iturriak landu, bakarkako zein taldekako jarduerak eta gogoeta, besteak beste.

Bestalde, materiaren nondik norakoak eta irizpide guztiak gida batean daude jasota. Ikasle guztiek daukate gida hori eta online plataforman ere eskuragarri dute.

Lantzen ditugun iturriei dagokienez, egin beharreko irakurketa guztiak txosten batean jasota daude. Hauen erreferentziak online plataforman ere eskura dituzte. Bertan daude ikus-entzunezko iturrien erreferentzia guztiak.

Bigarren mailan 200 ikasle inguru daude, eta denek egin behar dute BHKH materia. Ikasle horiek 28 laguneko taldeetan daude banatuta eta talde bakoitzak bere tutorea dauka. Tutore horiek materiaren ekipoa osatzen dute eta sekuentziak aldi berean kudeatzen dituzte.

Honako hau da materiaren sekuentzia guztiek daukaten egitura:



Hurrengo atalean azalduko dugun sekuentzian ikusiko dugu urrats hauek nola gauzatzen diren.

Baliabide eta dispositibo didaktikoei dagokienez, ikasleek ezagutza eraikitzeko baliabide hauek daukate eskura nagusiki:

- Tutoreen gidaritza
- Hitzaldiak (HUHEZiko irakasleekin eta kanpoko irakasleekin)
- Testuak (liburuak, artikulak, prentsa testuak etab.)
- Pelikulak, dokumentalak, ikus-entzunezkoak
- Landa-lana
- Ikerketarako eta eztabaidarako saioak
- Online plataforma: foroak, berriak...

## **4. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA: IMMIGRAZIOAREN FENOMENOA ETA ETORKI- NEN EGOKITZE-PROZESUA**

### **4.1. Ikaste-xedeak**

Hasieran esan bezala, testu honetan materiaren lehenengo sekuentzia azaltea daukagu helburu. Azal dezagun, hasteko, honako hauek direla sekuentzia honen ikaste-xedeak; alegia, hauexek direla ikasleek sekuentzia bukatutakoan lortu behar dituzten ezagutza eta konpetentziak:

- Immigrazioaren datu nagusiak ezagutzea.
- Harrera gizartean immigrazioaren inguruan sortu diren kezkek eta kontrako argudioak ulertzea eta erabiltzea.
- Etorकिनen egokitze prozesua eta bere faktoreak ezagutzea.

Ikusten denez hiru alderdi horiek aukeratu dira immigrazioaren fenomenoari heltzeko. Hasteko garrantzitsua da datu errealak ezagutzea (zenbat etorkin dauden EAEn eta probintzia bakoitzean, zenbat emakume eta zenbat gizon, non bizi diren batez ere, zenbat ume dauden erkidegoko eskoletan, zeintzuk eredutan eta saretan, zer gertatzen den beste erkidegoetan eta Espainia mailan, immigrazteko arrazoiak zeintzuk diren eta zein den emigranteen oinarritzko profila...). Bigarrenez, aztertzen da zeintzuk estereotipo, mesfidantza eta beldur sortu diren harrera gizartean estatus kanpoko immigrazioarekiko; hainbat testu jorratzen dira sentimendu eta jarrera horiek analizatzeko eta baita eraldatzeko eta positibizatzeke ere. Azkenik, etorritakoen egokitze-prozesua aztertzen da (zer den integrazioa, zeintzuk diren autoktonoen jarrerak eta zein eragin daukaten integrazio prozesu horretan, zer den akulturazio estresa...). Ikasleek hau guztia landu ondoren oinarritzko ezagutzak dauzkate materiaren hurrengo sekuentziekin aurrera egiteko.

### **4.2. Sekuentziaren lau saioak**

#### **4.2.1. Lehenengo saioa: aurrezagutzak**

Lehenengo sekuentziaren lehenengo saioa ohikoa baino motzagoa izaten da; materiaren lehenengo eguna izanik, lehenengo ordua KHBH materia osoa aurkezteko baliatzen dugu (ez gara orain horretan geldituko). Bigarren orduan sekuentziari heltzen diogu.

Gorago esan bezala, lehen saioak ikasleen aurrezagutzak aktibatzea du helburu. Ikasleen pentsamendua agertarazteko Eduardo Galeanoren "El FMI y los pobres" bideo laburra hartzen dugu oinarri. Ekoizpen horretan Galeanok azaltzen du tonu ironikoan nola eragiten duen aberatsen jokoerak pobreengan, aberatsen eta pobreen arteko tartea oraindik gehiago areagotuaz. Bideoa ikusi ondoren berrogei minutuko eztabaida bideratzen da Galeanok azaldutakoaren inguruan eta baita gure testuinguruan gertatzen denaren inguruan, bai maila lokalean bai maila globalean. Eztabaida hausnarketa-galderen bitartez bideratzen da. Irakas-



leak galdetzen die ikasleei, adibidez, zergatik gertatzen diren migrazioak edota harrera gizarteak erantzukizunik baduen fenomeno horrekin lotuta. Saioan zehar ikasleek beraien usteak eta aurrezagutzak adierazteko aukera izaten dute. Fase honetan ikasleei ez zaie eskatzen eztabaidarako eskuartean darabilkigun gaiaren inguruko ezagutza sendorik izatea. Nola antolatzen da eztabaida hori? Tutoreok ikasleei tarte mugatu bat ematen diegu talde txikitan beraien iritziak eta ideiak konpartitzeko. Dinamika honen ostean talde handian egiten dugu lan. Tutoreak dinamizatzaile lana egiten du elkarrizketa eta eztabaida bideratzeko.

Saio honen bukaeran irakasleak azaltzen du zeintzuk diren sekuentziaren ikaste-xedeak eta zeintzuk izango diren xede horiek lortzeko ikasleek landu behar dituzten materialak eta baliabideak.

Hauexek dira sekuentzia hau lantzeko ikasleek erabili behar dituzten materialak.

#### **4.2.1.1. Immigrazioaren testuingurua**

- Barquin, 2012 (*Irakurketaren helburua*: Immigrazioarekin lotutako datu garrantzitsuenak aurkitzea, gaien kokatu ahal izateko).
- Carbonell, 1995, 17-19 orr. (*Irakurketaren helburua*: Nork eta zergatik emigratzen duen ulertzea, estereotipoak gainditzeko laguntzeko).

#### **4.2.1.2. Autoktonoen usteak immigrazioaren inguruan eta kontrako argudioak**

- Carretero 2010; Sanmartin, 2009; El Intermedio, 2010; Bruquetas eta Moreno, 2011 (*Hurrien helburua*: gizartean dauden estereotipo hedatuak ulertzea eta haien kontrako argudioak ezagutzea. Testu bakoitzean estereotipo jakin batzuk lantzen dira).

#### **4.2.1.3. Egokitze prozesua**

- Colectivo Amani, 1994, 127-129, 134-140 orr. (*Irakurketaren helburua*: kontzeptu nagusi batzuk ulertzea. Haien artean daude etorkinek harrera gizartean egokitzeko dauzkaten aukerak, integrazioa, autoktonoen jarrerak, kultura eta kulturaren ezaugarri nagusiak).
- Martín Beristian, 1999, 194-195 orr. (*Irakurketaren helburua*: talka kulturala eta akulturazio estresa kontzeptuak aurkitzeko dira bertan).

Testu hauekin batera beste batzuk ere iradokitzen zaizkie ikasleei gomendagarri moduan. Ez ditugu hemen jarriko artikulua hau gehiegi ez luzatzeko.

Ikasleek derrigorrezko testuak hirugarren saiorako irakurri behar dituzte; izan ere hirugarren eta laugarren saioetan bi kasuri eman beharko diete erantzuna irakurritakoa eta ikasitakoa erabiliz.

#### 4.2.2. Bigarren saioa: iturri baten jorratzea

Gaiaren bigarren eta hirugarren saioan hainbat motatako informazio iturri erabiltzen dira; iturri horien lanketaren ondorioz, ikaslea joango da bere ezagutza eraikitzen. Hortaz, bigarren saioan Marta Arribas eta Ana Pérezek zuzendutako *El Tren de La Memoria* (2005) dokumentala ikusten dugu gelan, non Espainiatik Alemaniara joandako emigrazioa azaltzen den. Ondoren TVE2ko *Versión Española* dokumental honen inguruan emititu zen debatearen pasarte batzuk aztertzen ditugu. Ikasleek jarduera honetan zehar egin behar duten ataza da Espainiatik Alemaniarako emigrazioaren eta Euskal Herrirako immigrazioaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak bilatzea.

Bigarren saioaren azken fasean jasotako datuak konpartitzen dituzte ikasleek talde handian eta horien inguruko gogoeta egiten dute bukatzeko. Ariketaren helburua da ikasleak konturatzea espainiarrek ere emigrazio fenomeno bizi izan dutela duela ez horrenbeste eta haien esperientzia eta oraingo immigranteen esperientzia antzekoak direla hein handi batean. Alderdi diferentzialak ere aurkitzea interesgarria da. Bigarren saioan egiten den jarduera honi modu eraginkorra irizten diogu ikasleen enpatia etorkinekiko sortarazteko.

Azkeneko minutuetan, gure ikasleei landa-lan txiki bat egitea eskatzen diegu uste eta errepresentazioekin lotuta. Ikasleek beraien inguruko pertsona batzuei galdetu behar diete zer pentsatzen duten immigrazioaren eta etorkinen inguruan. Galdetu behar diete halaber nondik datozkien ideia horiek, zein iturritatik (lagunengandik, komunikabideetatik...). Beraien familian, lagunaren artean edota kalean burutu behar dute galdetegi txiki hau. Ataza honen emaitzak gelara ekarriko dituzte, laugarren saioan, bertan jasotako erantzunen inguruan eztabaida sortu ahal izateko. Ikasleek, beraz, aukera izango dute ordura arte jorratutako edukiak modu praktikoa eta "bizitzazko-agoan" aplikatzeko.

Bestalde, bigarren saiotik aurrera materiaren tutoreek online plataforman foroa zabaltzen dugu ikasleen gogoeta bultzatzeko asmoz. Izan ere, helburua da ikasle guztiek beraien iritzia edo ikuspuntua jasotzeko eta sozializatzeko aukera izatea. Beraz, talde eta tutore desberdinen arteko elkar-ekintza bultzatzen eta bermatzen dugu horrela. Tutoreek jartzen dugu ariketa abian baina ez dugu foroan parte hartzen ikasleek askeago adierazi ahal izateko. Halere, foroetan parte-hartzea librea da; ikasleak ez daude derrihortuta.

Hona hemen lehenengo foroaren plan-teamendua. Izenburua honako hau da:

*Ez naiz arrazista, baina ...*



Jatorria: <http://erasmusensuiza.blogspot.com/> 2010/10/ preparando-la-patada.html

### Arrazistak al gara?

- *Autobusean marokoar bat zure alboan jartzen bada, edota hemengo nor-bait jartzen bada aldamenean, berdin jokatzeko al duzu?*
- *Immigrazioa = delinkuentzia?*
- *Senegaleko familia bati alokatuko al zenioke zure pisua? ...*

Ataza honetan ikasleek irudia aztertu behar dute eta hauen inguruan gogoe-ta egin. Planteatutako galderek ere hausnarketa sustatzea dute helburu.

Hona hemen bigarren irudia:



Jatorria:  
[http://www.flickr.com/photos/alvaro\\_herraiz/4196254845/](http://www.flickr.com/photos/alvaro_herraiz/4196254845/)

#### 4.2.3. Hirugarren saioa: trebatzeko ekoizpen bat

Ikasleek derrigorrezko materialak irakurrita eta landuta ekarri behar dituzte saio honetara. Izan ere saioaren lehenengo tartea testuak lantzean sortutako zalantzak argitzeko erabiltzen da.

Jarraian irakasleak kasu bat banatuko die ikasleei, 40 minututan talde txiki-tan erantzuteko. Ikasleek daukaten material guztia erabili ahal dute erantzuteko eta orri baten espazioa ezin dute gainditu kasua ebazteko.

Honako hau da kasua:

*Irakaslea zara eta zure ikastetxeko irakasle batek azaldu du, bilera batean, etorkin asko bertako gizartean "integratu ezinak" direla, eta marokoarrak eta txinatarrak aipatu ditu besteak beste. Azaldu du immigrante horiek ez direla bertakoak bezala bizi, beste ohitura batzuk dituztela, beste erlijio bat daukatela... Zure lankideak esan du ez direla behar bezala integratzen.*

*Ados zaude adierazpen hauekin? Badaukazu zer gehitu?*

*Eman hemen zure erantzuna kontuan izanda BHKH materiaren lehenengo gaiari ikasi duzuna. Azaldu iezazozu lankideari gai horretaz dakizuna berak ere hobeto uler dezan.*

Kasuei erantzuna eman baino lehen tutoreak oinarrizko kontrol-zerrenda bat proposatzen die ikasleei. Kontrol-zerrenda horrekin bai edukiari, bai hizkuntzari, bai testugintzari erreparatzen dietela bermatu nahi da. Zerrenda hori ataza burutu baino lehen hartuko dute aintzat:

- 1.- *Testua ulertzen da? Komunikatiboa da?*
- 2.- *Iturriak egoki erabili dira? (Pertinenteak izan behar dira, alegia, harira datozenak erabili behar dira; aberatsak izan behar dira; aipua egin behar dira).*
- 3.- *Testua egokia da? Alegia testuinguru komunikatiboari erantzuten dio (hartzaila, testuaren helburua, igorlearen rola...)*
- 4.- *Testuaren antolaketa orokorra koherentea da? Ongi kohesionatuta dago? Paragrafoen antolaketa egokia da? Eta ongi lotuta daude? (lokailuak, zeinu ortografikoak...)*
- 5.- *Zer moduz zuzentasuna? Ortografikoa? Morfosintaxikoa? Lexikoa?*

Egoera honi erantzun ondoren taldeek elkarren artean trukatzeko dute beraien idatzizko lana. Kontrol-zerrenda irizpide gisa, idatzizko lanen ko-ebalua-keta egin behar dute; hau ere talde txikitik. Bukatzeko, talde bakoitzak bere idatzizko lana jasotzen du bueltan, beste talde batek egindako ekarpen eta zuzenketekin.

Behin ariketa hau eginda, gela mailan aztertzen da kasua eta elkarrizketaren bidez ematen zaio erantzuna, denon artean. Materiaren lehenengo kasua da eta ariketa baliagarria da ataza mota horretan ikasleak trebatzen hasteko.

Honetaz gain, ikasleei ematen zaien beste baliabide bat da kasu baten eredu ona. Horretarako, beraien perfileko beste ikasle batek egindako testu bat ematen zaie. Eredu honen bidez ikasleek modu zuzenean eta praktikoan ikusten dute zer den beraiengandik espero dena. Eredu hau gelan aztertzen dugu eta bere alderdi positiboak nabarmentzen; hobetzekoak diren alorrak ere jorratzen ditugu.

#### **4.2.4. Laugarren saioa: azkeneko ekoizpena**

Gaiaren azken saioan ikasleei eskatzen zaie ezagutza berria modu praktikoan berriro aplikatzea. Orain modu indibidualean egin beharko dute ariketa, nork bere baliabideekin eta denbora ez-presentzialean egin duen lana aprobetxatuz. 40 minutu dauzkate eta orri bat erantzuteko. Taldeka egiten ikasi dutena bakar-kari egin beharko dute orain. Hona hemen kasua.

*Etxean zaudela, zure senide bati entzun diozu immigranteak arazo larriak sortzen ari direla gizartean. Azaldu du gizarte-laguntza gehienak lortzen dituztela eta ez dutela zergarik ordaintzen, osasun zerbitzuak kolapsatzen ari direla eta haien erruz delinkuentzia igotzen ari dela. Gainera, berak uste du gure gizartea inbaditzen ari direla eta ez dutela balio handiko ekarpenik egiten.*


*Ados zaude adierazpen hauekin? Badaukazu zer gehitu? Eman hemen zure erantzuna kontuan izanda BHKH materiaren lehenengo gaian ikasi duzuna. Azaldu iezaiozu zure senideari gai horretaz dakizuna berak ere hobeto uler dezan.*


Behin ataza hau eginda, ariketaren azkeneko parte da erantzunak bikoteka trukatzea eta nork bere kidearen idatzia baloratzea eta osatzea aurretik azaldu-tako kontrol-zerrenda irizpide gisa hartuta. Egile bakoitzak bestearen ekarpena irakurtzen eta ko-ebaluatzen du. Bukatzeko, irakasleak lan guztiak jasotzen ditu balorazioa egiteko asmoz. Astebete beranduago itzuliko dizkie ikasleei balorazio batekin lagunduta.

Saioaren azkeneko partean ikasleek egin duten inkesta txikien emaitzak konpartitzen dira gela mailan; hau da, egindako landa-lanaren ariketaren emaitzak sozializatzen dituzte beraien artean. Horrek aukera ematen die usteen eta errepresentazioen gaia berrartzeko. Foroan jasotako iritzia ere aintzat hartzen dira azken saio honetan. Baliabide hauek guztiak oinarri gisa hartuta, ikasleek beraien diskurtsoa errebisatu eta berreraikitzen dute; oraingo honetan kontuan hartuta sekuentzian zehar ikasi dutena. Beste hitz batzuetan esanda, azken saio honetan ezagutzan funtsatu behar dute beraien arrazoibidea.

### 4.3. Sekuentzia didaktikoaren eskema orokorra

Modu grafikoan ilustratuta, hau da lehenengo sekuentziaren eskema:





#### 4.4. Ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, ikasleen ikaste-prozesua ebaluatzen eta kalifikatzen da. Horretarako kontuan hartzen da beraien parte-hartzea saioetan, foroan eta talde-lanean.

Prozesuaz gain, azkeneko ekoizpena ere aintzat hartzen dugu tutoreok. Taldeka eta banaka jorratutako kasua eta ikasleek burututako ko-ebaluazioa izaten ditugu kontuan fase honetan. Kasua ebaluatzeko irizpideak agertzen dira aipatutako kontrol zerrendan.

#### 5. ONDORIOAK

Sekuentzia bukatutakoan, tutoreok uste dugu lehenengo saioaren ikastexedeak betetzen direla, besteak beste sekuentziaren antolaketari eta baliabideei esker. Azkeneko saioaren elkarriketan ikasleek bi asteetan zehar ikasitakoa

azaleratzen dute eta nabarmena da gazteek beste modu batean hitz egiten dute-la gaiei buruz.

Ikasleek orokorrean harrera ona egiten diote sekuentzia honi. Beraientzat landu gabeko gaiak dira lehenengo sekuentzia honetan agertzen direnak eta hasieran batzuk eszeptizismoz mintzatzen dira. Beste batzuek harridura adierazten dute Euskal Herriko argazkia bereganatzen dutenean, beraien inpresioa baita euskal gizartean etorkinen eta hauen seme-alaben portzentajea errealtatean dena baino altuagoa dela. Adibide batzuk baino ez dira. Izan ere, immigrazioarekin lotutako hainbat datu eta errealtate oso ezezagunak dira gure ikasleentzat eta sekuentziak aukera eskaini die modu sendo batean haietara hurbiltzeko.

Askok ere bidaia pertsonala hasten dute lehenengo sekuentzia honetan. Hasieran zurruntasunez hitz egiten dute, baina beldur, kezka eta usteen inguruan aritu ondoren eta horiei buruz tresna berriak maneiatu ostean, hasierako zurruntasuna eta baieztapen firmeak beste tonu batekin adierazten hasten dira. Estereotipoetan eta aurreiritzietan oinarritutako usteak dituztela konturatzen hasi eta horrek ikasle batzuk kolokan jartzen ditu. Adibide gisa, sekuentzia hasten dugunean ikasle ugari uste du immigrazioarekiko erantzukizunik ez duela; beraien ez dutela eraginik fenomeno horretan. Aldiz, sekuentziaren azken saiorako talde handi bat hasia dago konturatzen harrera gizartearen hiritarrok eragileen artean ere bagaudela. Hori da lehenengo sekuentzia honen helburu nagusi bat, ikasleek beraien diskurtsoa errebisatzea. Horretarako ezinbestean "krisi" garai bat pasa behar dute eta hau ez da erraza izaten zenbait ikaslerentzat.

Bide batez, ikasleak konturatu dira oso modu arretatsuan irakurri behar dituztela testuak (egoki azpimarratu, eskemak egin...) gero kasuari ezarritako denboran egoki erantzun ahal izateko. Batzuek sekuentzia honetan pairatutako urduritasunak lagunduko die hurrengo sekuentzietan lan gehiago eta hobea egiteko, kasuari hobeto erantzuteari begira.

Hizkuntzarekin lotutako alderdiak eta alderdi testualak garrantzitsuak dira gure materialen eta presente daude jada kasuei erantzuteko kontrol-zerrendan. Prozedura akademikoak ere (aipuak egitea, iturriak erabiltzea...) agertzen dira bertan. Hurrengo sekuentzietan ere landuko diren aspektuak dira.

Ikasleek egin beharreko landa-lana azkeneko ikasturte honetan integratu dugun jarduera izan da. Ia sekuentzia guztietan egin behar dute mota honetako ariketa bat. Ikasleek begi onez hartu dute modu praktikoan egin beharreko ikerketa hau. Beraientzat aukera paregabea da teoria modu eraginkorrean aplikatzeko, era oso praktikoan eta dinamikoan.

## **6. ZENBAIT ERRONKA**

Nahiz eta zenbait hobekuntza egin ditugun materialaren ibilbidean zehar, oraindik ere badugu zer hobetu. Lehenengo sekuentzia honetan zentratuaz, foroan jasotako erantzunen kopurua oso altua izan da; hau da, ikasle gehienek hartu

dute parte *Ez naiz arrazista, baina...* jardueran, parte-hartzea derrigorrezkoa izan ez arren. Aldiz, ikusi dugu ikasle gutxi ausartu dela politikoki zuzena den diskurtsoetik aldentzen eta horrek tutoreok ikasleen benetako usteetara eta erre-presentazioetara hurbiltzea zailtzen gaitu. Ondorioz, askotan ez zaigu erreza egin identifikatzea zein den batzuen benetako pentsamendua eta horri modu eraginkorren eta eraikitzailean erantzutea. Elea taldeak egindako ikerketa batzuen helburua izan da, hain zuzen, ikasleen pentsamenduan sakontzea, materialen ikasleen aurrezagutzak eta usteak kontuan hobeto hartzeko asmoz (ikus Barquín, Alzola, Madinabeitia eta Urizar 2010; Urizar, Madinabeitia, Alzola eta Barquín 2011).

Online plataformari dagokionez, ikasleek beraien kezkek, esperientzia edota interesatzen zaizkien gaiak partekatzea ere ez dugu guztiz lortu. Ikasleak animatzen ditugu beraien intereseko gatazkak edo eremuak foroan beste taldeekin sozializatzen; beraien interesekoak diren berriak edota informazioa igotzeko ere bidea ematen diegu. Orokorrean ikasleen partaidetza zentzu honetan oso murrizta da. Honek esan nahi du beraien inizatiba pizteko baliabideak behar ditugula.

Bukatzeko, materiaren ibilbidean egin ditugun aldaketen artean, aurretik aipatutako trebakuntzarako tarte luza izan da bat. Ikasleak estrategiek hornitu ditugu teoria eta praktika modu egokian uztartzeko. Aurten egindako hobekuntza horren emaitza oraindik ikusteke dago, baina orokorrean apustuak eta ahaleginak merezi izan duenaren inpresioa dugu.

## 7. BIBLIOGRAFIA

- ARREGI, X.; BILBATUA, M.; SAGASTA, M. P. (2004). "Innovación curricular en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de Mondragón Unibertsitatea: Diseño e implementación del perfil profesional del Maestro de Educación Infantil". *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 18 (1), 109-129.
- ARRIBAS, M.; PÉREZ, A. (2005). *El Tren de La Memoria*. Madrid: Producciones La Iguana & Oasis.
- BARQUÍN, A. (2012). *Zenbait datu immigrazioaren inguruan*. (Argitaratu gabeko dokumentua).
- ; (2011). "Immigrazioa, hezkuntza-premiak eta diskurtsoak". In Moreno, G, Aierdi, X. (Koord.). *EAEko Immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria*. Ikuspegiak, Immigrazioaren Behatokia, 117-122.
- ; (2009). "Etorkinen seme-alabak eskolan: zer aldatzen ari da?" *Hik Hasi*, 143, 29-32.
- ; (2007) "Educación intercultural". In: Celorio; López de Munain, A. (Koord.): *Diccionario de Educación para el Desarrollo*. Bilbao: Hegoa.
- BARQUÍN, A.; ALZOLA, N.; MADINABEITIA, M., & URIZAR, A. (2010). "El pensamiento del alumnado de magisterio sobre la inmigración y los inmigrantes". *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del profesorado*, 13 (3), 95-111.
- BESALÚ, X. (2002): *Diversidad cultural y educación*. Madrid: Síntesis.



- BRUQUETAS, M.; MORENO, F. J. (2011, maiatzak 23). Inmigración: España sale ganando. *El País*. Hemendik jasoa: [http://www.elpais.com/articulo/opinion/Inmigracion/Espana/sale/ganando/elpepiopi/20110523elpepiopi\\_10/Tes](http://www.elpais.com/articulo/opinion/Inmigracion/Espana/sale/ganando/elpepiopi/20110523elpepiopi_10/Tes).
- CARBONELL, F. (1995). *Inmigración: diversidad cultural, desigualdad social y educación*. Madrid: MEC.
- CARRETERO, N. (2010, irailak 29). "Inmigración: desmontando tópicos". *Rebellion*. Nondik jasoa: <http://www.webislam.com/?idt=14018>.
- COELHO, E. (2006). *Enseñar y aprender en escuelas multiculturales*. Barcelona: Editorial Horsori, S.L.
- COLECTIVO AMANI (1994). *Educación intercultural. Análisis y resolución de conflictos*. Madrid: Edit. Popular.
- EL INTERMEDIO (2010). Los inmigrantes son los causantes de todos los problemas. YouTube.
- GALEANO, E. (2008). *El FMI y los pobres*. Multicanal Alba. Nondik jasoa: [http://www.dailymotion.com/video/x8x9kt\\_el-fmi-y-los-pobres-eduardo-galeano\\_shortfilms](http://www.dailymotion.com/video/x8x9kt_el-fmi-y-los-pobres-eduardo-galeano_shortfilms).
- GARCÍA, M.; BARANDIARAN, A.; LOPEZ DE ARANA, E.; MARTÍNEZ, A.; VITORIA, J. R. (2008). El aprendizaje basado en problemas en la formación inicial del profesorado: innovando para mejorar. V *Congreso Iberoamericano de Docencia Universitaria. Enseñar y aprender en la universidad del siglo XXI: propuestas y condiciones*. Universitat Politècnica de Valencia, 2008/10/ 29-31.
- MARTÍN BERISTÁIN, C. (1999). *Reconstruir el tejido social; un enfoque crítico de la ayuda humanitaria*. Barcelona: Icaria Antrazyt.
- SAGASTA, M. P.; BILBATUA, M. (2006) "La titulación de maestro en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de la Universidad de Mondragón: proceso de innovación educativa". *Educatio siglo XXI*, 24, 77-96.
- SANMARTÍN, O. R. (2009, abenduak 21). "Mentiras sin fronteras". *El Mundo*. Nondik jasoa: [aprendiendoaconvivir.net](http://aprendiendoaconvivir.net).
- URIZAR, A.; MADINABEITIA, M.; ALZOLA, N.; BARQUÍN, A. (2011). "Creencias y representaciones del profesorado en activo y del alumnado de magisterio en torno a la inmigración y la escolarización del alumnado de origen inmigrante". In Parrilla, A., López Melero, M. (koord.). *Reinventar la formación docente. La formación de los docentes y el currículum escolar: la atención a la diversidad y formación para la convivencia* (kongresuaren aktak). Universidad de Málaga, 2010/11/8-10.